



ARESOko UDALA

EUSKARA EZAGUTZA BETEKIZUNA IZANEN DUEN ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUAN ARITZEKO IZANGAIEN ZERRENDA HAUTAPROBA BIDEZ OSATZEKO DAIALDIRAKO OINARRIAK

1. Oinarria- Lanpostua

1.1. Deialdi honen xedea Aresoko Udalak izan ditzakeen beharrei behin behinean erantzuna emateko, euskara ezagutza betekizuna izanen duen zerbitzu anitzetako lanpostuan haritzeko izangaien zerrenda, hautapropa bidez osatzea da.

1.2. Izendatuak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

-Ur biltegien, kloratzaileen eta hornidura eta saneamendu sareen mantentze-lanak eta kontrola eta kontadoreen irakurketa.

-Herriko argiteriaren mantentze eta zaintza lanak.

-Herriko bide eta mendien mantentze lanak.

-Udalaren beste hiri zerbitzuen mantentze eta zaintza lanak.

-Arlo hauetako lanak: igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea, zurgintza, soldadurakoak, etab.

-Udalak eskatutako egitura eta aparailuak jarri eta kentzea.

-Hiri altzarien pintatze lanak.

-Aresoko hilerriko garbiketa eta mantentze lanak.


-Aresoko eskolako mantentze lanak.

-Aresoko Udaletxeko mantentze lanak.

-Laguntza administratiboko oinarrizko lanak, agiriak banatzea, Arantzako Udalaren mugapean bandoak zabalitzea, eta Udalak eskatzen dizkion guztiak, betiere lanpostuari lotuak direnak.

2. Oinarria.-Izangaien betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:



ARESOko UDALA

a) Nazionalitate espainiarra edo beste edozein estatutakoa izatea, abenduaren 29ko 27/1994 Foru Legeak bere 1. artikuluan ezartzen duenari lotuz eta bertan ezartzen diren baldintzetan.

b) Adinez nagusi izatea eta, hala bada, legez ezarritako adina ez gainditzea.

c) Eskola Graduatu, Lehen Mailako Lanbide Hezkuntzako edo baliokide den titulua izatea.

d) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

e) Euskaraz jakitea. Eskatutako titulazioa ez badu, ezagutza hori egiaztatzeko, euskara-mailako proba bat egin beharko du izangaiak, lanpostuko hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-maila nahikoa duela zehazteko.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez egotea eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izana.

g) B-1 motako gidabaimena izatea.

2.2. Izangaiak eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenagoko baldintzak bete behar dituzte, eta hautapen-prozedurak iraun bitartean izan behar dituzte, izendapena egin arte.

3. Oinarria.-Eskabideak.

3.1. Eskabideak deialdi honetan (I. eranskina) argitaratutako ereduaren arabera egin behar dira, Aresoko Udalaren erregistroan aurkeztuko dira. Aurkezteko 2021eko otsailaren 5a, ostirala, eguerdiko 14:00ak arteko epea izanen da.

a) Idazkaritzako arreta ordua: bederatzietatik eguerdiko ordu bietara.

b) Helbide elektronikoa: areso@areso.eus

c) Helbidea: Eliz Bidea z/g, 31876 Areso (Nafarroa)

* Postaz bidaltzen duten izangaiak, b) atalean jasotako helbide elektronikoan, eskabidea aurkezteko epea bukatu baino lehen jakinarazi behar izango dute.

3.2. Eskabidearekin aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Nortasun Agiriaren fotokopia konpultsaturik.

b) Benetako kopia edo eskatutako titulazioaren edo hori jasotzeko ordainketaren ziurtagiriaren konpultsatutako fotokopi.



ARESOko UDALA

- c) Euskara bailaren ziurtagiria edo euskara froga gauzatzeko eskaera
- d) Funtzio publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda ez egotearen eta administrazio publiko batetik bananduta ez egotearen zinpeko aitordpena.
- e) B-1 gida baimena.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. Oinarria.-Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Aresoko Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko.

4.2. Izangai baztertuek bost egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, eskabidean edo dokumentazioan akatsik egin badute, zuzenketak egiteko.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta haiek ebatzitakoan, Aresoko Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko eta, probak hasteko datarekin eta tokiarekin batean, argitaratzeko agindua emango du.

5. Oinarria.-Epaimahaia.

5.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Mahaiburua: Aresoko Udaleko alkatea.

Kidea: Aresoko Udaleko zinegotzia.

Kidea: Leitzako Udaleko zerbitzu anitzetako langilea

Kidea: Cederna-Garalurrek izendatu beharreko teknikaria.

Idazkaria: Aresoko Udaleko idazkaria, hizpidea duena baina boto-gabea

Epaimahaiko kide bakoitza, bere ordezkari ezartzen den eta funtzioen eskuordetzea jasotzen duen pertsonagatik ordezkaria izan liteke.

5.2. Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da eta eraketa eta jarduketara baliozkoak izateko haien kideen gehiengo osoak agertu beharko du, gutxienez.



ARESOko UDALA

5.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sor daitezkeen afera guztiak.

5.4. Epaimahaiak aholkulariak deitu ahalko ditu proba batzuetarako nahiz guztietarako. Aipatu aholkulariak beren esparru teknikoetan bakarrik, ez bestetan, lagundu ahal diote epaimahaiari.

6. Oinarria- Euskara froga

Oposizio fasea baina lehen, lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-maila egiaztatzeko froga egingo da

Froga hori Nafar Gobernuko Euskarabideko teknikariek egingo dute, eta ez gaitzat jotzen diren hautagaiak kanporatuko izanen dira.

7. Oinarria.- Oposizioaren garapena

7.1. Oposizioaren lehen ariketaren hasiera-data onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartu eta argitaratzearekin batera finkatuko da.

7.2. Ondoren, gainerako proben iragarkiak argitaratuko ditu epaimahaiak, Aresoko Udaleko iragarki-oholean.

7.3. Oposizio-faseak ariketa hauek izango ditu:


a) Lehen ariketa teorikoa:

Deialdi honen II. eranskineko gai-zerrendari buruzko hainbat galdera labur edo test motari idatziz erantzutea izango da. Gehienez 40 puntu. Gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuko dira.

b) Bigarren ariketa praktikoa:

Egin beharreko zereginekin lotutako lan txikiak egitea, deialdi honen 1. oinarriko 1.2 puntuan adierazitakoen artekoak. Materiala emango da. Probaren gehieneko puntuazioa 60 puntukoa izango da, eta kanpoan geratuko dira gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

7.4. Ariketa bakoitzaren zuzenketa amaitutakoan, epaimahaiak argitara emango du Aresoko Udaleko iragarki-oholean lortutako kalifikazioekin gaitutako izangaien zerrenda, bai eta oposizioaren hurrengo ariketa egiteko data, tokia eta ordua.



ARESOko UDALA

7.5. Frogak deialdi bakarraren bidez egingo dira, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute. Deialdira agertzen ez diren izangaiek kanporatuta geratuko dira.

8. Oinarria.- Gaindituen zerrenda.

8.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Aresoko Udaleko iragarki-oholean eta azken proba egiten den tokian argitaratuko du gaindituen zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta. Berdinketarik gertatuzkero, bigarren ariketan puntuazio handiena lortu duen izangaiaren alde ebatziko da.

8.2. Epaimahaiak Aresoko Alkatetzari helaraziko dio puntuazio handiena lortu duen izangaia izendatzeko proposamena.

9. Oinarria.- Gaindituen zerrenda eta deialdiak.

9.2. Aresoko Udalean sortzen diren premien arabera, deialdi honen oinarrietan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera, gainditutako izangaiei deitzeko aukera izanen da.

9.3. Proposatutako izangaiek deialdiaren 2.1 puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte 7 egun naturaleko epean, kontratazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:


a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.

b) Funtzio publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda ez egotearen eta administrazio publiko batetik bananduta ez egotearen zinpeko aitorpena.

c) Interesdunak karguari dagozkion eginkizunak betetzeko gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duen mediku-txostena, Mankomunitateak zehaztutako mediku-taldeak egina.

Dokumentazio hori aurkezten duten izangaiek kontratua sinatzera joan beharko dute, Aresoko Udalak adierazitako epean.

10. Oinarria.- aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda kudeatzeko arauak.



ARESOko UDALA

10.1. Deitzeak

Epaimahaiak proposatutako eta onartutako zerrendan onartutako pertsoneri deitzeko aukera izanen da, Aresoko Udalean sortzen diren premien arabera.

Hautagaien deialdia dagokion zerrendan agertzen diren lehentasun-ordenaren arabera egingo da.

Deitzeak egiterakoan deialdi honetako oinarriak hartuko dira kontuan; salbuespena Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriko 3. paragrafoan ezarritakoa, maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak emandako idazkeran (16/2002 Foru Legea, desgaitasunen bat duten pertsonen administrazio publikoetan enplegua lortzeko dituzten alderdiak arautzen dituena). Alta emanda egongo dira, eta Segurtasunaren Araubide Orokorrean afiliatuta.

10.2. Deitzeetarako arau orokorrak:

a) Hautagaiek, lokalizazioa errazteko, harremanetarako telefono bat gutxienez jakinarazi beharko dute, hargatik eragotzi gabe harremanetarako beste telefono batzuk edo posta elektronikoko helbidea ere jakinarazi ahal izatea. Informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute.

b). – Oro har, telefono bidezko kontratu bat eskaintzen zaion pertsona bakoitzari gutxienez hiru lokalizazio-saiakera egingo zaizkio, berak emandako harremanetarako bitartekoen bidez, bi eguneko epean.

c) Deialdi bakoitza jasota utziko da, zer inguruabarretan, noiz eta zer ordutan egin den adierazita.

Izangaiarekin harremanetan jarri eta kontratazio-eskaintza bat egiten badu, ez badio erantzuten, uko egin diola ulertuko da, eta 9.4 atalean xedatutakoa aplikatuko zaio.

d). – Izangaia ezin bada aurkitu, zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin harremanetan jarriko da, eskaintako lanpostua bete arte.

Harremanetan jarri ezin izan diren pertsonen dagokien zerrendan jarraituko dute.

e). – Hasierako iraupena hiru hilabetekoa edo laburragoa duten aldi baterako kontratazioen kasuan, edo lanpostua urgentziaz bete behar bada, eta ezin bada bi eguneko epea itxaron aurrez ezarritako deialdietarako, prest dagoen lehen izangaiari eskainiko zaizkio, baldin eta, 3. zenbakian aurreikusitakoa bete beharrik gabe, harekin harremanetan jartzea lortzen bada eta berehala lanean hastea onartzen badu.



ARESOKO UDALA

10.3. Kontratazio-eskaintzari uko egitea.

Izangairen batek eskainitako lanpostuari uko egiten badio, dagokion zerrendako azken postuan geratuko da, honako kasu hauetakoren batean dagoela egiaztatzen ez badu; kasu horretan, zerrendan jarraituko du:

- a) Amatasun, aitatasun, adopzio edo harreragatiko lizentzia-egoeran egotea.
- b) Aldi baterako ezintasun-egoeran egotea.
- c) Lan-kontratu bat indarrean izatea.
- d) Adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz moldatu ezin den odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senideren bat bere zaintzapean izatea. Arrazoi hori dela-eta kontratu bati uko egiten diotenak ezin izango dira berriz prest egon uko egin zaionetik gutxienez hilabete igaro arte.
- e) Norberaren ezkontza edo antzeko egoera, eskainitako kontratuaren hasiera-data eratu aurreko edo ondorengo hamabost egun naturalen barruan badago. Kasu horietan, izangaia prest ez dagoela agertuko da aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendan, izangaiak berak prest egotea eskatzen duen arte. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, eraginpeko pertsonak prest ez dauden egoeran egongo dira, eta ez zaie deialdi honetan aipatzen den zerrendako lanposturik eskainiko.

Atal honetan zerrendatutako egoeraren batean dauden pertsonak agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dute hori, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik kontatzen hasita 7 egun naturaleko epean; kasu horretan, uko egiteko unean izangaien zerrendan zuten leku berean egongo dira.

10.4. Zerrendako azken lekura jaistea.

Zerrendako azken postuan geratuko dira honako kasu hauetakoren batean dauden izangaiak:

- a) Dagokion kontratua ez sinatzea izangaiari egotz dakioken arrazoiren batengatik, deialdiari jarraiki lanpostua onartu ondoren.

10.5. Zerrendetatik kanpo uztea.

Deialdia eragin duen zerrendatik kanpo geratuko dira honako kasu hauetakoren batean dauden izangaiak:

- a) Probaldian kontratua deuseztatzea.
- b) Lanpostua uztea.



ARESOko UDALA

- c) Kontratua azkentzea, lanpostua betetzeko kontratatutako pertsonaren gaitasunik edo egokitzapenik ezaren ondorioz, baldin eta lanpostuari esleitutako eginkizunak eraginkortasunez egitea eragozten duen errendimendu nahikorik ez badu.
- d) Sinatutako kontratuari uko egitea.
- e) Kontratua azkentzea diziplinazko arau-hausteagatik.

10.6. Lan-kontratuak.

Askotariko zerbitzuetako enplegatuen lanposturako izangaiei aldi baterako administrazio-kontratua eskainiko zaie. Kontratu horren iraupena gertatu den beharraren arabera izango da, eta araubide juridikoa abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren eta hura garatzen duen araudiaren mende egongo da.

11. Oinarria.-Errekurtsoak.


Deialdi honen aurka nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsioa, administrazio egintza onetsi zuen organoaren aurka, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aitzina.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu edo errekurtsioa ekarri duen aplikazio egintza jakinarazi eta biharamunetik aitzina.
- c) Zuzenean gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

12.Oinarria.- Datuen babesa:

2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. Artikuluan jasotakoaren arabera, honako hau jakinarazten die hautagaiei:

- Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Aresoko Udala da.
- Tratamenduaren helburua langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpoltsa betetzea da.



ARESOko UDALA

- Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.b) artikulua. Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa den tratamendua, eta DBEOren 6.1.c) artikulua. Tratamenduaren arduradunari aplika dakioken legezko betebeharrak bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua.
- Datuak gorde egingo dira biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki-erakundeetako dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak).
- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (urriaren 30eko 5/2015 LED), gardentasun-atarian argitaratzea barne, 19.2. 5/2018 Foru Legearen F.
- Titularrek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan edo datuak babesteko ordezkariaren areso@areso.eus helbidearen bidez.
- Halaber, eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazio bat aurkezteko, baldin eta uste badute tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin, edo, bestela, aldeztatik erreklamatu ahal diote datuak babesteko ordezkariari.

Areson, 2021eko urtarrilaren 18an- Alkatea Jose Otermin Echarri

